
AUGUSTIN ZUBIKARAI

IDAZTEA

Izkuntza guztietan, idazleak garrantzi aundia izan dabe, eta dabe, berbeta orrean garapenerako. Zenbat eta geiago euki, aberatsagoak izango dira.

Geure euzkera maitean, oso berandu arte etzan iñor idazten asi eta orrek atzerapen aundia ekarri dautso. Dana dala, Bernart Etxepare'ren alditik orain arte gauzak asko aldatu dira eta gaur egunean idazle bikain batzuk ba-doguzala esan lei. Batzuk aitatzekotan oneixek gendukez: Aita Santi Onaindia, Jaime Kerexeta, Eusebio Erkiaga, Bernardo Atxaga eta Augustin Zubikarai, besteak beste. Danak ezagunak.

OMENALDI TXIKI BAT

Bahia, euren artetik bat goraiatu nai neuke beren-beregi: AUGUSTIN ZUBIKARAI.

Ondarruko idazle au oso sartuta dogu euskal gogo-lantze edo jakintzan, batez be euzkereari dagokionean. Oso ezagunak doguz bere lanak eta ekintzak eta berezitasun bat: here euzkerearenganako maitasuna eta etengabeko alegiña.

Nik, idaz-lantxo onegaz, omenaldi txiki bat eskeiñi gura neuskio. Mailla apalean, bai, baiña nere eskerrona eta txalo beroa sartuta.

ZERGAITIK

Alde batetik berak euzkereari eskeintzen dautsan biar zintzoagaitik eta bestetik, genre alea maitatu eta aldeztuten irakatsi daustalako. Bere euzkera ulerterreza, txukuna baizen ederra.

Augustinek, ia, ia, here bizitza osoa eskiñi dau euzkerearen mesedean eta bizkaieraren aide, batez be; bera aberastuz eta indartuz, obetu eta zabaldu nairik. Bai idazle lez, bai EUZKERAZAINTZAKO

kide lez eta bai izparkari lez ("EGUNA", DEIAKO idaz-lanak, BIZKAIA-IRRATIAN, eta abar, eta abar).

SARIAK

Eta ondo egiña dagoanak here saria daukan lez, gure Augustinek be sari eta aipamen asko jaso dauz here bizitzan zear. Orra batzuk: "Toribio Alzaga" Saria antzerti saillan, "Gipuzkoa" antzerki Saria, "Txomin Agin-e" Saria elebarrikoan, besteak beste. Baita olerkari izan be. Ez da gauza makala.

Ikusten dogunez, arlo danak ikutu dauz eta orrek erakusten dau here maitasuna eta goi-mailla, nai ta berak merezi dauan ospea edo ezagutza ez artu (bizkaieraz idazten daualako izan ete leike?)

LANAK

Edozetara be, or doguz here lan-pare bakoak eta emoitzak, orain biar ta beti balio dabenak.

Bestaldetik, euzkerearen batasunaren gaia dogu. Batasun ori, bearbada, bearrezkoa izan lei, baiña gure elearenganako maitasunez egiña eta euskal sena galdu barik egin bearko litzakela pentsaten dot. Orretarako, jakiña, euskaldun jakintsu ta jatorrak bear dira. Eta arlo onetan, nor egokiago Augustin Zubikarai bail-1o?

Bene-benetan, Euzkereak ba-dauka zer eskertu Augustin'eri eta euskeldunok zer esanik ez. Bera gure berbetearan aldazle ta euskarririk sendoentariako bat dalako. Jarraitu begi aurrera euzkera ta gure jakintzaren onerako eta eldu bekioz geure eskertza ta omenaldi biozkorra.

MALAX-ETXEBARRIA TAR JON
"KALAMUA"